

# ataria

2020-04-24 • 1.227. zenbakia  
107.6 fm • [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

## Bizipenek lotutako bi herri





# AURKIBIDEA

- Iritzia** Arantxa Iturbe **3**
- Xiberutik** Aitor Atxega **8-9**
- Asteko Gaia** Oporrak Bakean **10-17**
- Hitzez Hitz** Mikel Artola **18**
- Iritzia** Iñaki Azaldeggi **19**
- Iritzia** Agurtzane Belauntzaran **20**
- Iritzia** Arantxa Sorondo **21**
- Begirada Grafikoa**
- Ibon Odriozola **24**
- Errezeta** Aintzane Artola **25**
- Elkarrizketa** Enrike Rubiños **26-27**
- Elkarrizketa** Amets Arzallus **28-29**



**Azaleko irudia**  
Iñigo Terradillos

# ataria

**URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€**

**bai** ezabatze eta lana eskaratu

**3** **ikam**

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ARGITARATZAILEA:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95  
**KOORDINATZAILEA:** Rebeke Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46  
**WEBGUNEA:** ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM  
**PUBLIZITATEA:** 661 678 818 • publi@ataria.eus

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:**



Tolosaldeko gizarte eragileak

**TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:**

**Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altoz, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**ARANTXA ITURBE**  
IRRATILARIA

# Maskara erraldoia

zatekotan, bizkarrez» erantzun nien eta bizkarririk eman gabe onartu zidaten baldintza. Ibairi bururatu zitzaion antiojoak ezertarako behar ez diren tokian jartzearena. Grazia egin zidan. Begien aurrean daukazue emaitza.

Eta gero mundua aldatu zen. Edo munduari begiratzeko modua. Edo munduan ibiltzekoa.

Orain zortzi Izarnek balkoiz balkoiko pentsamendu katea eraiki zuen bezala, nik ere kateatu nahiko nuke argazki berria gaur egungo egoerarekin, eta esan, kutsakortasunari aurre egiteko ez dagoela bizkarra ematea baino modu aproposagorik. Baina argazkia atera genuen egunean birusak eta etxealdiak urrutiko melodia ziren, maskarak ekialdeko jendearen beldur neurrigabearen erretratu. Bagenekien bazebilela. Bagenekin bazela. Han. Gu argazkiak ateratzeko geratu ginen goiz batez.

Eta gero mundua aldatu zen. Azkar. Geure mundua. Axola zaigun mundua bakarra da. Eta ez ditu kilometro asko.

Ez nion inori bizkarra eman nahi, noski. Argazki hau ez da emakume kapritxoso, setati, sinoti eta egoskor baten argazkia. Edo beharbada bai. Baina argazkietan ez agertu nahia ez da behintzat ezaugarri horien ondorio. Hitzek eraginkortasuna lehenetsi nahi duen pertsona baten argazkia da. Hitzek irribarrea edo salaketa, hausnarketa edo iraina euren gain hartu eta noranahi kutsatzeko ahalmena dutela sinistu nahi duen pertsona batena. Hitzek gerturatzen gaituztela uste duen batena. Eta hitzak idazten dituenaren aurpegia erakusteak, hitzak distortsionatu egiten dituela defendatzen duen batena. Hitzek zer eta nola, nork

baino garrantzitsuago beharko luketela esaten duen batena.

Eta gero mundua aldatu zen. Eta orain, ez dakit zer egin: ez dakit goibeldu egin behar ote dudan denboraldi batean inoren aurpegia aurrez aurre eta gertutik ikustea ia ezinezko izango dela pentsatuta, edo poz-tu, egoera berrian ere tematuta jarraitzen dudalako hitzak aurpegiak baino garrantzitsuagoak direla esaten. (Iruditzen zait ia edonork sina dezakeela azken baieztapen hau egunotako esperientzien ondoren: dozena erdi bideo-dei nahikoa dira horretarako. Gra-

## **Kateatu nahiko nuke argazki berria gaur egungo egoerarekin, eta esan, kutsakortasunari aurre egiteko ez dagoela bizkarra ematea baino modu aproposagorik**

zia egiten dute. Aspaldi ikusi gabekoak parean! Ze emozio! Ze ilusio! Bakoitzaren txoko ezezaguneko zati harrigarriren bat deskubritzen duzu. Baina benetan lortu al du inork noizbait *pulamentuzko* zerbait esatea begien aurrean pantaila aurpegiz beteta duela? -konexioaren gorabeherei buruzko kontu argigarrietz aparte, esan nahi dut-).

Hurrengoan, hala ere, argazkiak hemen jarraituko du. Maskara erraldoi modura. Hitzak kutsatu gabe irakur ditzazun.

# ENERGIA, BERTAN SORTU ETA BERTAN ERABILI

Orexako Ostatuko teilatuan 45 eguzki panel jarri dituzte; aurrerago pilotalekuko teilatuan eta Urrutxugain auzoko lursail batzuetan jarri nahi dituzte. Horrela, herriak behar duen energiaren erdia plaken bidez sortuko dutela kalkulatu dute. Horrelako ereduak herri txikietara «ondo» egokitzen direla dio Eneko Maioz Orexako alkateak.

**Irati Saizar Artola**

**E**nergia berriztagarrien aldeko apustua egi- ten ari da Orexako Udala. Herrian behar duten energia guztia bertan sortzea hel- buru hartuta, eguzki panelak jarri dituzte ostatuko teilatuan. Aurrerago beste bi eremutan jar- tzeakoak direla azaldu du Eneko Maioz Orexako alka- teak.

«Aspalditik genbiltzan energiaren gaiari heldu nahian», dio Maiozek. Orexa Bizirik herri proiektua abian jarri zutenean hasi ziren gaia lantzen. Lehen pausoak udal eraikinetan eman zituzten. Pellet bidez- ko berokuntza sistema dute jarrita eraikin guztietan. «Beste jauzi bat» eman nahian, energia berriztaga- rrien alde egin du udalak. «Orexak daukan kokagune- agatik eta orientazioagatik, egokia izan zitekeela iru- ditu zitzaigun».

Hiru produkzio eremu identifikatu dituzke eguzki panelak jartzeko, eta lehen eremuan, ostatuko teila- tuan, jarri dituzte jada. Urtea amaitzerako jarri nahi di- tuzte pilotalekuko teilatuan eta datorren urte hasie- ran Urrutxugain auzoko lursail batzuetan jartzea da asmoa.

Momentuz, beraz, 45 eguzki panel daude jarrita os- tatuko teilatuan. Egun, ordea, itxita dago ostatua, eta Maiozek azaldu duenez, ez daukate potentzial guztia

ikusteko aukerarik. Hala ere, kalkula dezakete zenbat energia sortzen ari diren: «Konparazio simple bat egi- te aldera, esan genezake, hiru hilabetetan plaka ho- riek sortu duten energiarekin autoz 15.654 kilometro egin genitzakeela».

Hiru faseak amaitzen dituztenean, herriak behar duen energiaren erdia sortuko dutela kalkulatu dute. ostatuko plakek sortzen duten energia ostaturako soilik dago bideratuta, baina beste bi instalazioekin herri guztian zehar banatzeko aukera izango dute, al- kateak esan duenez «ia herri guztia transformadore berdinen pean dagoelako». Hor sortuko den ener- gia guztia «bizilagun guztien artean banatzea» da as- moa. «Bereziki bertako komertzioei laguntza berezia eman nahi diegu, kasu honetan, bai ostatuari eta bai- ta kooperatibari ere, eta gero, etxebizitza pribatueta- ra joango litzateke».

## **Bateriarik gabekoak**

Plakek eguzki bidez sortzen dute energia, alegia, egunez. Bateriarik jarri ezean, sortu ahala erabili be- har izaten da energia hori, bestela ez baitu pilatzen. Orexan «momentuz» bateriarik ez jartzea erabaki dute: «Iruditu zitzaigun ez zeukala zentzurik ostatu- rako bakarrik behar dugun energia bateria batzuetan



gordetzeak, asmoa ez baita ostatua saretik isolatzea, baizik eta sistema handiagoa egiten dugunean benetan kalkulatzea zer komeni zaigun eta zer ez». Plakak jarriagatik, gero ere badute aukera bateriak jartzeko.

Prezioari begira ere jarri dira, izan ere, bateriak jartzeak «gastua asko igotzen du». Gutxi gorabehera 23.000 euroko gastua egin dutela zehaztu du alkateak. «Egunez behar dugun argindar guztia plaken bidez sortzen badugu, horrek gastu finkoak jaistea ekarriko du», gaineratu du. Sorkuntzari eman diote lehen-

tasuna, eta aprobeztatzen dutenaren arabera moldaketak egingo dituztela aurreratu du Maiozek.

Horrelako eredu bat herrian txertatzea «txikitasunak» ematen duen abantaila bat dela dio Orexako alkateak: «Horrelako ereduak herri txikietara ondo egokitzen dira, eta egingarria bada eta demostratzen badugu, iruditzen zaigu beste asko interpelatzeko ari garela beste mundu batean sartzeko». «Pauso txikiak» emanez jarraitu nahi dute, baina «beti norabide zehatz batean».

**ATARIAn jarrita Goleerri eta Urola Kostako Hiltza egunkarieran doan**

## hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€  
 Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€  
 Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95  
 Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

# «Burujabetza energetikorako urrats bat da»

**IÑAKI OLAETXEA**

LASKORAIN IKASTOLAKO  
ZUZENDARIA

Ikastolaren Usabal eraikineko teilatuan eguzki instalazio fotovoltaikoak jarriko dituzte laster eta horri esker, energia berriztagarrien sorkuntza eta baliabideen zentzuzko erabilera bultzatuko dituzte, elektrizitate gastua murriztuz

**Jon Miranda** Tolosa

Ikasturte hau bukatzerako jarriko dituzte plaka fotovoltaikoak Laskorain ikastolan eta proiektuarekin «ilusionatuta» daudela dio Iñaki Olaetxea Amonarriz (Tolosa, 1978) zuzendariak. Orain ikastolan abiatzen dena, beste eragileek jarrai dezaketen bidea dela uste du.

**Aspalditik al da Laskorain ikastola Goiener kooperatibako bazkide?**

Duela bost urte inguru Ikastolen Elkartetik Goiener ekimena aurkeztu ziguten eta ikastoloi bertako bazkide egitera animatu gintuzten. Goiener kontsumo kooperatiba bat da, energia berriztagarria merkaturatzen duena eta Hego Euskal Herrian aritzen da. Euskaraz funtzionatzen du eta haiekin harremana egin genuenean erabat profesionalak iruditu zitzaizkigun. Gure filosofiarekin bat egiten zuela ikusita erabaki genuen bazkide egitea.

**Zer da Goienerrek Laskorain ikastolari orain arte eskaini diona?**

Kooperatibako bazkide izanda energia berriztagarria

«Soberakina Goienerreko gainerako bazkideen artean banatu ahal izango da»

saltzen zigun orain arte Goienerrek. Aurten, ordea, Espainiako legedian aldaketa bat egon da eta energia sorkuntzaren inguruan autokontsumoa bultzatzeko aukerak zabaldu dituzte. Goienerrekoak harremanetan jarri ziren gurekin proiektu bat bazutela eta bost ikastolekin lantzea gustatuko litzaiekeela esanez.

**Energia era banatuan sortzeko ekimena da mahai ganean jarri zizuetena?**

Bai. Proiektua azken batean da, ikastoletako teilatuetan energia berriztagarrien sorkuntza sustatzea. Tutera, Etxarri Aranatz, Bermeo eta Gasteizko beste lau ikastolekin batera sartu da proiektuan Laskorain. Azken batean energia sortu eta autokontsumoaren bitartez, ikastolok energia fakturan aurrezpena izango dugu modu horretara. Gainera, energia soberakina Goienerreko gainerako bazkideen artean banatu ahal izango da.

**Kalkulatu al duzue zenbat energia sortuko duzuen ikastolan jarriko diren plaka fotovoltaikoekin?**

Aurreikuspen bat besterik ez da, baina urteko produk-





Iñaki Olaetxea eskuinean, Goienerrekin hitzarmena sinatzeko orduan. **ATARIA**

## ELKARRIZKETA

teilatua aproposa denez, bertan 181 modulu jarriko dira. Usabalen behar dugun energia sortuko da plaka fotovoltaiko horien bitartez.

### **Energia zuek sortu, zuek kontsumitu eta soberakina partitu. Energia berriztagarria da gainera, garbia.**

Bai, horrela da. Eguzkiaren energia erabiliko dugu eta CO<sub>2</sub> murrizpen handia ekarriko du horrek, 621 zuhaitzek urtean xurgatzen dutena adina. Esan dugun bezala energia soberakina inguruko bazkideen artean banatuko da eta energia bera garraiatzeak dakarren kutsadura murriztu eta bidean egoten diren galerak aurrezteko aukera egongo da. Baina, horrekin batera, modu lokalean eta herritarren parte hartzearekin gauzatuko da proiektua eta hori ere azpimarratzekoa da. Instalazioa egingo dutenak inguruko gremioetako langileak izango dira.

### **Pedagogikoki baliatuko al duzue proiektu hau ikastolan?**

Bai. Hezkuntza erakunde bat garen neurrian, ikasleekin tailerrak egingo ditugu. Energiaren sorkuntza iturriez maila teorikoan azalpenak emango zaizkie ikasleei baina gero beraiek izango dira informazio bilketa hori egingo dutenak: instalazio horietatik zenbat energia lortzen dugun eta ikastolan zenbat kontsumitzen dugun neurtu be-

zioa batz bestea, 65.026 kWh-koa izango dela uste dugu. Kalkulatzen da urtean 140 etxetako batez besteko energia kontsumoa estaltzeko adina dela. Kontua da, uztaila eta abuztuan ikastola ia ez dela funtzionamenduan egoten eta eguzkitik energia gehien sasoi horretan jasotzen dela. Orduan soberan dugun energia hori inguruko Goienerreko bazkideen artean banatuko da. Horrela zirkulu guztia osatu eta sortutako energia guztiari erabilpena emango zaio. Probetxua aterako diogu, ez da ezer alperrik galduko.

### **Nola finantzatuko da proiektu hau?**

Oso interesgarria egin zaigu Goienerreko jarduteko era, zentzu horretan. Ez die mailegurik eskatzen entitate finantzarioe, bazkideek egiten dute ekarpena. Bost ikastola hauetarako inbertsioa egiteko 400.000 euro behar ziren eta bazkideen artean bildu da diru hori. Astebetean biltzea lortu zen gainera. Bazkideok kooperatibaren proiektuetan inbertitzeko modua dugu, urteroko mozkina jasotzeko aukerarekin, gaur egun %2ko interesarekin.

### **Zenbat plaka fotovoltaiko jarriko dituzue eta non zehazki?**

Sakramentinoetako eta Usabalgo eraikinak aztertu ziren eta azkenean ikusi zen Usabalgoa zela egokiena. Batxilergoko eskolak ematen diren horretan dagoen

«Zenbat energia lortu eta zenbat kontsumitzen dugun neurtu beharko dute ikasleek»

harko dute. Helburua bikoitza baita, energia gehiago lortzea bai, baina baita kontsumoa murriztea ere. Hurrengo ikasturteari begira, gustatuko litzaziguke jardunaldi ireki batzuk antolatzea ikasleek beraiek azaldu diezaieten eskualdeko beste erakunde eta eragileei zein emaitza izan dugun ikastolan. Ikasleak ahalduz da proiektu honen beste parte bat, eta helburua da irakasle eta gurasook azalpenak haien ahotik jasotzea.

### **Aldagai sozial hori ere badago proiektuaren atzean, akaso, beste hainbat esparrutara ere esportatu daitekeena.**

Bai, ados nago. Uste dut modu lokalean burujabetza energetikorako urrats garrantzitsu bat dela. Askotan Agenda 21 eta beste proiektu asko marko teorikoan geratzen dira eta iruditzen zaigu hau ariketa praktikoa dela Tolosan bertan tolosarrok egin dezakeguna.



**AITOR  
ATXEGA**  
MANEX BAT

# Aire!

**M**artxoaren 13an hasi zen orain artean probatu gabe genuen *etxealdi* honen bidea. 13 ostiralarekin! Baina seguru samar ohiko arrastoan sartzen hasiko gara laster antzera eta hortxe jarri dut gogo. Zer nahiko ote du jendarteak zoritzarreko mamu honen hortzak kamusten hasten direnean? Pintxo-potea, zinema, kontzerturen bat... Zilegi noski. Baina manex honek ez duenez inoiz izan hainbeste denbora sukaldean jarduteko, pelikulak ikusteko eta musika entzuteko, bestelako gogoak izango ditu.

Hona arte esandakoek nabarmen salatzen dute manexak zer nahiko duen normaltasunean sartzen hasten garenerako. Zuberoa! Bertara joan eta Zuberoak eskaintzen duen onirismo horretatik edan nahiko dut mozkortu arte! Begiak, belarriak eta sudurra itxi, eta hango leku, soinu eta lurrinak bizi nahiko ditut.

Zuberoako paraje batzuk apartatu ditut gaurkoan, iruditzen baitzait gehientsuenok aire bila ibiliko gara *ateraldian*. Litekeena norbaitek gustura hartzea.

Zuberoa, iparretik hegora, hiru barrutitan banatzen da: Pettarra, Arbaila eta Basabürüa.

Baga: Pettarratik iristea aukeratu baduzu, Ezpeize-Ündüreinen gera zaitezke lehen lurrinak bizitzen hasiteko. Zuberoan elizak ia beti irekita daude, beraz zoaz barnera eta ikusgai izango dituzu margo eder batzuk monumentu izendatutako eliza honetan. Zuberoako *hirupuntadun* ohiko eliza bat da errepidean bertan. Horrelako asko ikusiko dituzu! Ekialdera Uhaitzandi ibaia izango duzu eta mendebaldera lur sail ederrak. Garai honetan artoa erruz ikusiko duzu eta berehala sumatu lurraren garrantzia. Dena txukun, garbi... Zaila da belar txar bat ikustea Zuberoan.

Biga: Pettarraren hego mugan Maule-Lextarre hiriburua. Goialdean dago herrigune zaharra, Maule zena. Zoaz oinez! Bertako gazteluak, eraikuntza publikoa izanagatik ere, ikurrina bakarrik du. Ez dut nik ezagutzen besterik. Handik ikus dezakezu Sohütako Lizeoa; Zuberoan euskaraz ikas daitekeen lizeo bakarra. Han irudika ditzakezu Bereterretxe, Matalaz... Bertatik dotore ikus dezakezu Lextarreko Plaza. Neskenegünean, goizez, azoka oso polita egiten da. Inguruko nekazarien bertako produktuak (esne, gasna, ezti, barazki, ogi...) ez ezik, hamaika txerpolarri ikusteko moduan izango zara. *Hebentik* Zuberoako Kultura Elkarteko egoitza ikus dezakezu Matalaz Karrikan. *Hebentikek* sortzen duen produkzio itzel hori hain leku ñimiñotik jaiotzea...

Higa: Arbailan ipiniko nuke hurrengo parada, Gontaine-Iribarnen. Bertan Ütürzabala ibilbidea dago. Zuhaitz bikainak eta arte obra zoragarriak eskutik emanda. Koldobika Jauregik ere hantxe paratu zuen bere ale eder bat. Pasiera paregabea ibaiaren freskotasunean eta zuhaitz itzelen babesean. Libarrenx Jauregia ere bertan da zut.

Laga: *Coucou de Boix* Niko Etxarten abesti baten bidez entzun nuen lehen aldiz. Dantzaleku hau (Zuberoako tamainan noski) bidegurutze batean dago eta hemen hasten da nire hurrengo iradokizuna. Maulen D918 errepidea hartu Garazi norabidean eta bizpahiru kilometro egin ondoren izango zara hemen. Ezker egin. Zuberoako etxaldeak ikusten hasiko zara, Ossau-Irati sor-markarako ardiak, auzo txikiak. Honako buelta egingo nuke: Idauze-Mendi, Gamere-Zihiga (ikus Lamiña Zuloa), Mendi, Ozaze-Zühara





Urdirñarbe. ATARIA.

eta Elizanburu Kanpina. Altzürükü ezin utzi joan gabe. Buelta honen irtetea Urdirñarbetik egingo nuke. Galdetu beharko duzu Altzürükün Garaibierantz nola joan. Errepide ttiki batera iristean egin eskuin eta Urdirñarbeko plazara iritsiko zara.

Boga: Basabürüra noa orain. Barruti honek mendi itxura hartzen du. Hau da Piriniorako sartzea; hemendik joango ginasteke Orhira, Iratira, Holtzartera, Santa Grazira, Kakueta... Atarratzek badu ibai ondoan kanpin bat eta bertatik abiatu. D57 errepidea hartu eta gida ezazu herri hauetan barrena: Onizegaine, Ziboze, Zunharre, Lexantzü (zinez polita), Altzai, Sarrikotagaine, Lakarri... Jaitzi zaitez kotxetik eta ikusi hilerriak, baratzeak, etxaurretako loreak, ukuiluak, elizak, arbel teilatuak, ganadua, bidezidorrak. Esandako azken bi herrietatik Ligerantz jo dezakezu eta abentura txiki bat bizi: Berreterretxeren jaiotetxea eta hilarria bilatzea!

Bukatzeko tenorean naiz eta hiru irteera proposatuko ditut, hirurak mendebaldetik gutxi gehiago.

Sega: Urdirñarben Garaibie bailara hartu. Seinaleek Napal diote. Arango erreka ezker eskuin ibiliko zara; eskuinean zarenean Urdirñarben izango zara eta ezkerrean zarenean Altzürükün. Bailara oso polita da, larre zainduak, baserriak, hegaztiak, bortüa... Halako batean Le Garaibie Gite d'etapera iritsiko zara. Bertan, harpe-sarrera oso polit bat dago. Ez duzu inor ikusiko,

Zuberoak eskaintzen duen onirismo horretatik edan nahiko dut mozkortu arte!

busti zaitezke. Oinez ez dituzu 15 minutu egingo. Ostatu honetatik errepideak piku egiten du gorantz Napal gaina arte. Hemen usoak ehizatzen azpiegiturak ikus ditzakezu. Beherantz Bidouze iturburua ere ikus dezakezu. Donaixti pasata, Garazira iritsiko zara.

Zai: Maule-Lextarren D918 hartu Garazi norabidean eta Urdirñarbe pasa orduko Le Chistéra jatetxearekin topo egingo duzu. Gure maneran jateko leku gutxitariko bat bestaldean. Pirinioak eta paisaia ederrak ikusteko parada bikaina duzu arno bat edanaz. Metro batzuetara, igandea ez bada, Azkorria Kooperatiba

duzu. Bertako gazta erosteko aukera! Bidea segi eta Muskildi eta Pagola esku-eskura dituzu bisita motz bat egiteko. Pixka bat aurrerago, Oskaxe edo Oskitz gainean izango zara. Kotxea portu gainean utzi eta zoaz oinez San Anton baselizara (gure norabidean ezker aldera); ordu erdi azpitik han izango zara.

Zoi: Bukatzeko beste irtete eder bat. Altzürükün D117 errepidea hartu eta neguan maiz ixten duten portu bat igoko duzu Ahüzki gaina arte. Bertan jate-txe bat da eta bista paregabeak. Hemen egon izana ere ez zaizu luzaro ahaztuko. Hemendik behera, gainez gain segi eta Behe Nafarroako inguru ezezagun adina eder bat pasako duzu: Behorlegi, Mendibe, Ahatsa, Lekunberri. Donazaharretik barna, Garazitik, etxera bueltatzeko moduan izango zara.

Ea nik adina gozatzeko moduan zaren. Izan otsa!

# 20 URTE ETA GERO ETENALDIA

Udan bi hilabetez harreran haur sahararrak hartzeko Oporrak Bakean programa bertan behera geratu da; haurrek basamortuko muturreko egoera ekiditeko ordezko ideietan ari dira pentsatzen.



## Iñigo Terradillos Gaztañaga

**P**asa den urtean 20 urte bete zituen Oporrak Bakean programak Tolosaldean. 2021 urtera itxaron beharko da, baina, haur sahararrak berriro ere udan gurean ikusteko, ekitaldi gehienekin gertatu moduan, aurtengoa bertan behera uztea erabaki baitute.

Azken unera arte itxaropena bazuten ere, esperotako zerbait izan dela eta ulertzen dutela dio Ana Traperok Oporrak Bakean programako Tolosaldeko koordinatzaileak: «Une honetan errefuxiatuen kanpalekuetan koronabirusean positiborik ez dagoen arren, han ere neurriak hartzen ari dira, eta normala da arriskurik hartu nahi ez izatea. Izan ere, nahikoa da haur bat kutsatzea, kanpalekuetan birusa hedatzeko, eta hori hondamendia litzateke».

Hori bai, egoera ulertu arren, «pena handia» sentitzen du, eta «kezka» ere bai, batez ere, haurren egoeragatik: «Horrek kezkatzen gaitu, batik bat, udan kanpalekuetan geratzeak 50 gra-

duitik gorako tenperaturan egotea esan nahi baitu, hemen egin behar zizkieten osasun azterketak egin gabe edota elikadura aldetik gurera etorrira jasotzen zuten susperraldi hori gabe».

Itxaropen izpi bat bada oraindik. Oporrak Bakean programa ez da burutuko aurten, eta ondorioz, haur sahararrek ez dute uda Euskal Herrian harrera familien etxeetan igaroko. Baina, Ana Traperok zehaztu duenez, Fronte Polisarioa «idea alternatiboetan» ari da pentsatzen: «Oraindik ez dago ezer konfirmatuta, bai-

na, baliteke 12 urtetik gorako haurrekin egiten duten moduan, barnetegi modukoak antolatzea Aljerian». Beraz, egitasmo hori noiz zehaztuko zain daude, laguntzarik horretara bideratu beharko duten jakiteko.

Bitartean, aurten harrera familia moduan parte hartu behar zutenekin hitz egin dute dagoeneko. «Tristuraz hartu dute berria, batez ere aurten azken urtez etortzea egokitzen zitzaizen haurren kasuetan», azaldu du Traperok. Bada,

«Haurrak osasun azterketarik egin gabe eta elikadura egokirik gabe geratuko dira»  
**ANA TRAPERO**



egoerari bira eman, eta aurreikusi gabeko bidaietan pentsatzen ari denik ere: «Udan hurrek etorri ezin dutenez, harrera familia batzuk abenduan errefuxiatuen kanpalekuetara egiten den bidaiari parte hartzea ari dira pentsatzen, eta horrela haurra bisitatzeaz gain, familia ezagutu eta bizi duten egoera bertatik bertara ezagutzeko baliatu nahi dute».

Egoera berrian ere, saharar eta euskal familien artean sortutako «lotura berezia» mantendu nahi dute. «Udan gurera etorri ez arren, harremanarekin jarraitzea nahiko genuke. Orain, gainera, errazagoa da Whatsapp bidez komunikatzea». Ildo horretatik, azken asteetan asko handitu dela Aljeriako desertutik iristen den mezuen kopurua dio Traperok: «Gure egoeraren inguruko albisteekin arduratuta daude, eta etengabe ari dira deitzen eta mezuak bidaltzen, eta baita elkartasun bideoak egiten ere animoak bidaliz».

### **Askotariko pasadizoak**

Saharar gaztetxoentzat eta harrera familientzat uda desberdina izango den moduan, Ana Traperorentzat ere ezohikoa izango da. Tolosaldean Oporrak Bakean programak egin dituen 20 urteetan bera aritu da koordinatzen, eta lehen aldiz, inguruan saharar haurrik gabe igaroko du uda. Oraindik ez duela irudikatu

dio, «pena handiz» dagoela, baina, haurren pentsatu behar dela orain.

1999. urtea zen, Euskal Herriko hainbat zonaldean dagoeneko martxan zegoen programa Tolosaldean hasi behar zenekoa. Programa koordinatzeko hautatu zutenean, sahararren eta euren egoeraren inguruko berririk ia ez zuela dio Traperok: «Donostian 1988. urtetik ari ziren programarekin lanean, eta hango arduradunekin bildu nintzen nondik norakoak azaltzeko». 13 familiak eman zuten izena lehen urte hartan, baina, hegazkinekin izandako arazoak tarteko, hurrek ez zuten etortzerik izan urte hartan. Beraz, 2000. urtean hasi zen ofizialki programa Tolosaldean.

20 urte hauetan, batez beste, urtean 15 neska-mutil saharar etorri dira uda Tolosaldean igarotzera. «10 baino gutxiago ez ditugu inoiz izan, eta batzuetan 20ra ere gerturatu gara, duela bi urte, esaterako, 19 izan genituen». Ana Traperok koordinatzen aritu da, eta laguntzaile moduan begirale sahararrak izan ditu. Lehen urte haietan kanpalekuetatik etorritako begiraleak jartzen zizkietela gogoratzen du: «Polisarioaren nolabaiteko sari moduan-edo etortzen ziren, eta askotan lana erraztu baino zaildu ere egiten zidaten, batzuentzat kanpalekuetatik irteten ziren lehen aldia baitzen, eta gazteleraz ere ez zekiten», dio, barre artean. Gerora, eskualdean bertan bizi diren sahararrak hasi ziren betetzen paper hori.

Lehen aldia gogoratzen du, programaren koordinatzaileak, eta, bereziki Bilboko aireportura hurren bila joan zireneko unea: «Gizarte zerbitzuetako arduraduna eta biok joan ginen. Ez genuen zetozen hurren informazio gehiegirik, ez neskak edo mutilak ziren, ez eta beraien izenak, eta iritsi zirenean inpresio handia egin zigun, euren jantzi tradizionalarekin eta oinutsik baitzeuden». Gerora hori aldatuz joan dela dio, eta nolabait «ikasita» etortzen direla.

Baina, pasadizoak askotarikoak izan dituztela, «bai hunkigarriak, bai eta dibertigarriak ere» kontatzen du. «Jantziekin lotuta, eta lehen urte haietan, gogoan dut Espainiako bandera euren *darra* ohikoan bordatuta etorri zela gaztetxo bat», dio barrez Traperok. «Eskailera automatikoak, igogailuak, itsasoa, txartelarekin



## ASTEKO GAIA

eta 2001 urteko neguan Aljerian kokatutako saharar errefuxiatuen kanpalekuetara joan zen Ana Trapero bertako egoera gertutik ezagutzeko asmoz. «Oso esperientzia polita izan zen. Hango bizimodua gertutik ikusi, eskolak-eta bisitatu, eta udan etorritako haurren familietara ere joateko aukera izan nuen». Horren ondoren sortu zuten sahararren aldeko elkarte Tolosaldean. «Sahararren aldeko ekimena ez genuen udako kontuetara eta umeei zentratutako zerbaitera mugatu nahi. Saharar herriarekin elkartasuna sortu nahi genuen, eta ahal den neurrian lagundu. Horrela hasi ginen martxan».

Umeei «bizia» ematen diote Traperori. «Energia txute bat da niretzat». Pertsonalki «asko» betetzen duela sahararrekin duen lanak, dio, «oso intentsua» delako, baina, aldi berean, irailean, haurrei agur esateko unean «oso gaizki» pasatzen duela aitortzen du, «beheraldi handia» izaten baita berarentzat. Harrera familiekin sortzen den harremana ere nabarmentzen du: «Erlazio handia sortzen da, familia handi bat osatzen dugula esan daiteke, eta urtean zehar ere harremanetan jarraitzen dugu».

Hain justu, familiek izaten duten esperentziaz, edo programan parte hartuz jasotzen dutenaz galdetuta, «umeei ematen duten alaitasuna» errepikatzen dutela gehienek azaltzen du: «Hemendik gauza materiala ematen diegu, baina beraiek ematen dutena beste zerbait dela esaten dute: beste herri bat ezagutzeko aukera, familiaren esanahia edota konturatzea askotan gutxi behar dela zoriontsu izateko».

Oporrak Bakean Fronte Polisarioak haurren ongizatea oinarri hartuta bultzatutako programa dela gogoratzen du Ana Traperok. «Horrekin batera, Sahararen gatazka politikoarentzat leiho bat da, horren berri eman eta zabaltzeko». Uda honetan ezingo dira helburu horiek bete, ez behintzat orain arteko moduan, haurrek ezingo dutelako gurera etorri. Baina, beraiei eta, oro har, saharar herriari Tolosaldean laguntzen jarraituko dutela argi du Traperok.

ordaintzea... gauza asko berriak eta inoiz ikusi gabeak ziren beraientzat, eta horiek une berezi asko utzi dituzte». Hizkuntzarekin eta izenekin ere, bitxikeria ugari ditu gordeta oroimenean: «Lehen urte haietan, *Rosita* izena jartzen zuen zerrendan, eta nik pentsatzen nuen, oker idatzita egongo zela, baina, gero jakin nuen batzuek hemengo herritarrekin harreman sakona badute beraren izena jartzeko ohitura dutela seme-alabei». Izen hori bezala, gainerako haur guztien gogoratzen du tolosarrak: «Tolosaldera etorri diren haurren argazkiak erakusten badizkirate haur bakoitzaren izenarekin gogoratzen naiz».

Lehenaldi hartara itzuliz, «oso ondo» joan zela dio, eta, aldi berean, «oso gogorra» izan zela: «Uda amaitu eta negar batean amaitu nuen. Niretzat mundu bat deskubritzea izan zen, Saharako gatazka ez bainuen ezagutzen. Gatazka politikoaren berri izaten duzunean, euskaldun moduan identifikatuta sentitzen zara dituen antzekotasunengatik, eta nahiz eta fisikoki urrun dagoen lurraldea izan, gertu sentitzen duzu».

Lehen uda hark «ukituta» utzi zuen,

«Umeei bizia ematen didate, energia 'txute' bat izaten da niretzat; asko betetzen nau lan honek»

**ANA TRAPERO**



# «Ahal dugunean elkartzen jarraitzea da gure asmoa»

**AITZIBER MALKORRA  
ETA MOHAMED ALI**

**Iñigo Terradillos Gaztañaga**

**A**itziber Malkorra tolosarrak duela 18 urte hartu zuen parte Oporrak Bakean programan. Mohamed Ali sahararra etorri zen bere etxera sei urtez, uda bertan igarotzera. 18 urte geroago Tolosan elkartu dira biak. «Hunkigarria» izan dela hainbeste denbora eta gero elkar ikustea azaldu dute, eta ATARIA-rekin partekatu dituzte elkarrekin gaur egun eta lehen bititakoak.

**Nolatan hartu zenuen parte Oporrak Bakean programan?**

**Aitziber Malkorra:** Programaren berri izan nuen eta jakin-mina piztu zitzaidan. Beti Tolosan errolatuta egon naiz, baina, orduan Arriben (Nafarroan) bizi nintzen. Gizarte zerbitzuekin jarri nintzen harremanetan informatzeko, eta kontaktu zidaten nola bi hilabeterako zen, mediku azterketak egiten zituzten, irteerak haur sahararren artean... eta harrera familiak mantenuaz arduratzen zirela esan zidaten. Eta, azkenean animatu egin nintzen.

**Zenbat urte zenituen?**

**A. M.:** 30 urte nituen eta bakarrik bizi nintzen. Ni arduratu nintzen batez ere, baina, ama, anaia eta ingurukoek ere lagundu zidaten.

**Gogoratzen duzu Euskal Herrira uda igarotzera joan behar zinela esan zizutenean?**

**Mohamed Ali:** Bai. Sei urte nituen. Zerrendan zure ize-

na agertzen da, eta horrela jakiten duzu programan sartu zarela, eta nora egokitu zaizun.

**Nola oroitzen duzue lehen urtea?**

**M. A.:** Kanpalekuetatik irten nintzen lehen aldia zen, lehen aldiz gurasoengandik oso urrun egongo nintzen, eta beldurrez nengoan, urduri.

**A.M.:** Hain zegoen beldurtuta, non uda horretan 80 zentimetroko ohean elkarrekin lo egiten ikasi genuela. Komunera joaten banintzen ere, bera atzetik etortzen zen. Gogoratzen dut gazteleraz *ura* eta *bai*, hitzak soilik esaten zekiela.

**Nola izan zen lehen aldiz elkartu zineteneko unea?**

**A. M.:** Ederki gogoratzen dut une hori. Tolosako haur parkean izan zen. Autobusa iritsi zen, eta Ana Trape-ro koordinatzailea gerturatu zitzaidan esanez Mohamed egokitu zitzaidala. Nik ordura arte ez nekien zein ume zetorren etxera. Eskutik heldu zidan, koxera joan, eta Arriberantz abiatu ginen. Bidean begiak ikusten nizkion. Begi beltz-beltzak erabat irekita zituen, eta alde guztietara begiratzen zuen, txundituta. Tunelak igarotzean erabat harrituta geratzen zen.

**M. A.:** Ez naiz gehiegi oroitzen, baina, bai beldur nintzela eta oso urduri nengoela esango nuke.

**A. M.:** Hortik aurrera, egun osoan, eta uda osoan, nigandik urrundu gabe egon zen. Horrela sentitzen zen ondo, lasai. Pentsa egun batean, gaez, lagunekin parrandan irten nintzen, bera, anaia eta amarekin, etxean lotan utzi ostean. Segituan anaiak deitu zidan negar eta negar ari zela esanez. Etxera itzuli, ohean sartu ginen, eta lasaitu egin zen. Lehen astetik konturatu nintzen bere erreferentea nintzela eta behar ninduela, beraz, dedikazio osoa eskaini nion. Eta horrela izan ziren gainerako bost udarak ere.

«Esperientzia ederra da eta asko aberasten zaitu; ez nuen uste hain sakona izango zenik»

**AITZIBER MALKORRA**



**Hunkigarria izango da, ezta?**

**A. M.:** Bai, oso hunkigarria. Aldi berean, oso esperientzia ederra da. Nik ez nuen espero hain sakona izango zenik.

**Eraz moldatu zineten egoera berrira?**

**A. M.:** Bai. Gainera, nik udan izaten nituen oporrak, beraz, denbora guztia nuen berarentzat. Gauza pila bat egiten genituen elkarrekin, eta horrekin batera, sahararren artean irteerak ere antolatzen zituzten astero. Hori oso ondo etortzen zen, bai berarentzat, lagunekin elkartzeko, eta baita niretzat ere, arnas pixka bat hartzeko.

**M. A.:** Nahiko ondo. Lehen bi asteak izan ziren batez ere gogorak, baina, ordutik aurrera lasaiago egon nintzen. Hori bai, une oro Aitziberrekin.



Ezkerean, Aitziber eta Mohamed duela 18 urte, eta eskubian gaur egun.

**Lehen urteko despedida nolakoa izan zen?**

**A. M.:** Oso gogorra. Anaia eta biok joan ginen, eta malkoei ezin eutsi egon ginen. Erlazio oso handia, sakona egin genuen, eta sekulako maitasuna genion elkarri.

**M. A.:** Tristea izan zen. Etxetik ateratzean Aitziberren ama negarrez agurtu nuen, eta ondoren, Tolosako zezen plazan jende guztia negarrez ari zen. Tristea izan zen.

**Nola egokitzen dira berriro ere errefuxiatuen kanpalekuetara bueltatzeko ideia?**

**A. M.:** Naturaltasunez egiten dute. Kanpalekuetara bisitan joan naizenetan ulertu dut hori. Familia oso errotuta dago han. Transmittitzen diren baloreek ez dute zerikusirik hemengoekin. Gurean materialari garrantzi handiagoa ematen diogu. Beraiek, beraz, badakite hona etortzen direnean gauzak dauzkate-la, eta ahal dutena kanpalekuetara eman behar du-

tela familiarentzat. Gainera, lehen sei edo bost urtez etortzeko aukera zuten, beraz, urte gehiago irauten zuen hona bueltatzeko desira horrek.

**Algeriako basamortuan dauden saharar errefuxiatuen kanpalekuetan izana zara beraz.**

**A. M.:** Bai. Lehendabiziko udara eta gero, abenduan anaia eta biok joan ginen. Gauza asko ulertu nituen orduan. Han duten bizimodua ezagutzea garrantzitsua iruditzen zait, horrela askoz hobeto ulertzen baituzu umeen jarrera. Niri asko lagundu zidan.

**Esperientzia guzti horretatik zein oroitzapen gordetzen duzu une berezienen txokoa?**

**A. M.:** Hainbeste dira. Lehendabizikoz etorri zenekoa agian izan daiteke horietako bat. Begirada hura ez dut inoiz ahaztuko. Bere urtebetetzeak baita ere. Izan ere, udan ospatzen genituen, eta oso polita izaten zen. Nire familiarekin herrian igarotzen genituen egunak, baita ere. Herrian oso maitatua zen. Gogoa dut, baita ere, urte batean oportetan joan ginela Lizarrako kanpinera. Berak ez zuen joan nahi, ez baitzuen ulertzen kanpin dendarekin joateko ideia hori. Saharako haimekin parekatzen zuen. Oroitzen dut, baita ere, Donostiara joan gineneko unea; itsasoa ikusten zuen lehen aldia zen, oso hunkigarria izan zen.

**M. A.:** Niri Arriben egotea asko gustatzen zitzaidan, eta bertan egon nahi izaten nuen, handik atera

gabe. Pentsa, sahararren festetara ere ez nuen joan nahi izaten. Lehen urtean, uda igaro ostean kanpalekuetara itzuli, eta abenduan Aitziber gurera etorri zeneko unea oso polita izan zen.

**Une dibertigarriak ere kontaezinak izango dira, ezta?**

**A. M.** Barre ugari egin dugu urte hauetan guztietan.

**M. A.** Bai. Asko.

**A. M.** Umoretsua da oso Mohamed. Oso mutiko alaia da. Asko gustatzen zitzaion une oro gauza dibertigarriak egitea. Oso ume bizia zen, eta oso ondo pasatzen genuen.

**Orokorrean, beraz, zer eman dizue esperientzia honen?**

**A. M.** Pertsonalki, aberastasun handia. Hango errealitatea, bizimodu desberdin bat, ezagutzea handia izan da. Mohamed hona zurera etorrita laguntzen ari zarela pentsatzea ere gauza handia da. Beraiek ere asko ematen dute. Bestelako kultura, pentsaera eta ohitura duen jendearekin harremanak sakontzea nik uste dut garrantzitsua izan dela berarentzat. Bestalde, hara joan naizenetan etxean bezala sentitu naizela ere azpimarratuko nuke. Bere familiarekin gertuko harreman izan dugu, oso goxoa. Azkenekoz etorri zenetik hamabi urte igaro dira, eta telefonoz mantendu dugu harreman hori.

**M. A.** Nik gauza asko ikasi ditut. Esaterako, nire egunerokorako oso baliagarri diren hizkuntzak ikasteko balio izan dit, gaur egun gaztelania eta euskara pixka bat hitz egin dezakedalako. Igeri egiten ere badakit. Euskal Herriko familiak gauza asko eman dizkit. Nik programa honetan parte hartu dudanetik bi familia ditudala sentitzen dut.

**Lehen sei eta bost urte igarotzen bazituzten, orain harrera familiek hiru urte igarotzen dituzte haur saharrekin.**

**A. M.** Geroz eta familiago gutxiagok ematen du izena Oporrak Bakean programan, eta ahalik eta haur gehienek aukera izan dezaten murriztu egin dute gurean igarotzen duten urteen kopurua. Pena ematen du, urte gehiago igarota harremana gehiago sakontzen baita.



**Zure kasuan, Mohamedek zuenean sei urte igaro eta gero zer egin zenuen?**

**A.M.** Mohamedek azken uda igaro zuenean ez nuen jarraitu programarekin. Hori bai, elkartean jarraitu nuen ekimen desberdinetan laguntzen. Aurrerago ama izan nintzen, eta buruan beti dugun kontua da berriro ere haur saharar bat hartzea, gure Manexekin uda partekatzeko.

**Gaztetxoentzat esperientzia polita izango da.**

**A. M.** Guretzat garrantzitsua den bezala, haurrentzat ere oso ona da beste kultura eta bizimoduak ezagutzea. Esan beharra daukat gure haurrak Sahara beti izan duela oso presente, bai erakutsi dizkiogun argazkien bitartez edo kontatu diogunarengatik. Gainera, Mohamed eta bere familiarekin telefonoz hitz egitean bera ere aritzen da beraiekin solasean. Beraz, asko gustatuko litzaidake berak ere guk izan dugun esperientzia hori izatea. Dena den, iruditzen zait haur bat berriro ere harreran hartu aurretik, kanpalekuetara joango garela, familia ezagutzera, eta Manex ere ezagutu dezaten beraiek. Eta, nire kasuan bezala,





jende guztia animatuko nuke esperientzia polit honetan parte hartzera.

**Programa bukatu ostean, nolakoa izan da zure bizimodua?**

**M. A.** Hamabi urte nituen azkenekoz uda igarotzera etorri nintzenean, eta orain 25 ditut. Bitarte horretan, ikasketak burutu ditut eta militar egin naiz, eta horretan ari naiz lanean. Orain, Euskal Herrira etorri naiz, eta Tolosan nago. Baina, nire paperak egitera etorri naiz, eta horiek bukatzean, eta egungo egoera baretzean itzuliko naiz kanpalekuetara.

**Orain, hainbeste urte eta gero, berriro ere hemen elkar ikustean zer sentitu duzue?**

**A. M.** Oso polita izan da, oso hunkigarria. Ni oso urduri nengoen. Gauza askotaz hitz egin dugu, beste maila batean. Konfiantza eta konplizitate handia dago gure artean. Gauza askotan ez dugu bat egiten, emakumearen eta harremanen inguruan, esaterako. Berak beste pentsatzeko modu bat dudala ulertzen du, eta balio izan dio bere pentsaera irekiagoa izaten. Igaro ditugun une hauekin umetan uda igarotzera



etorri zeneko lehen urte hartako lehen egunak etorri zaizkit burura, denbora asko eman baitugu elkarrekin.

**M. A.** Urte asko eta gero berriro elkar ikustea handia izan da. Ni ere, bera bezala oso urduri nengoen. Hemen orain igaro ditudan lehen asteak kokatu ezinik egon naiz, baina, oso polita izan da.

**A. M.** Hemen udarak igaro zitueneko argazkiak ikusten ere egon gara, garai haiek gogoratuz.

**Tarteka hona, Tolosaldera, bisitan etortzea da zure asmoa.**

**M.A.** Bai, hori beti. Ahal dudanetan etorriko naiz bera bisitatzera.

**A. M.** Nik ere hala nahiko nuke.

# Mugaz honako hiztunok



**MIKEL ARTOLA**  
GALTZAUNDIKO KIDEA



**H**ogeita hamazazpi galdera egin zizkien mugaz bestaldera bizi ziren biztanleei Bernardo Atxagak, zorientasunaz eta maitasunaz, gasolindegiez eta marrubiez, besteak beste. Eta galdetu zien, bigarren edo hirugarren galderan, ea telefonoek mutu zirauten, bihotz mortuak bailiren, etxeko labirintoaren azkeneko salan.

Egunotan balkoi ertzetan dauzkagu mugarriak, inoiz baino labirintoago bihurtu dira ohiko bizilekuak, eta telefonoek ez diraute mutu gure egongeletan. Mugaz hona gertatzen denaz galdetzeko aprobe txatu beharko dugu, beraz, *etxi-etxian*, hizkuntzaz ari garenean ere.

Galde genezake, esaterako, euskarazko pelikularik ikusi dugun, ala *Netflixen* Espainian gehien ikusten den huraxe den hautatzen duguna, denbora pasa ezinik gauden uneetan; irakurri ote dugun libururik, eta irakurri badugu, ea zein hizkuntzatan egin dugun, ba ote dakigun zer argitaratzen den, *armiarma.eus* ezagutzen dugun ala umek bakarrik irakurtzen ote duten euskaraz; zein irratitan entzuten dugun albistegia, ohartu ote garen *ETB1* eta *ETB2*ko programazioaren aldeaz; zein egunkaritan jasotzen ditugun koronabirusaren datuak etxetik noiz irtengo garen kalkulatzeko; zer musika entzun ote dugun Mikel Landarena *arrabolan* egiten ari garenean, edo sofan *zeharretzanean* gaudela, ariketa fisikoa egiteko aholkuekin nazkatuta; alegia, zer ohitura ditugun kultur kontsumoari dagokionez.

Galde genezake, baita ere, zein hizkuntzatan ari garen etxeko txikiekin, eskolako lanak egitean zein jolasean; haiek bistan ez daudela berdin egiten ote dugun bikotekidearekin, kontu inportantez aritzeko; ohiko pintxopotearen orde *online* elkartzen garenean nola aritzen garen; haserretzen garenean zer esaten diegun anai-arrebei edo gurasoei; animoak nola bidaltzen ditugun Whatsappez. Alegia, zein hizkuntza ohitura dugun gure artean, gure etxean.

Baina alferrik da gehiago luzatzea adibideetan. Gatozen harira. Datuek diote Tolosaldean %80 inguruk ezagutzen duela euskara eta %50ek egiten duela etxean. Horrez gain, herri batzuetan (neronenean kasu), kalean baino hamar puntu gutxiago egiten da euskaraz etxean. Zer pentsatua ematen du. Askotan esan izan da egoera diglosikoan bizi garela euskaldunok, eta hori arazo larritzat hartu dugu: informalki euskaraz egiten da, baina funtzio formalean erdaraz. Ez dirudi, ba, egia osoa. Adituek diotenez, Tolosaldean eta antzeko inguruneetan arazoa alderantzizkoa da: muga desagertu egin da, eta erdara etxeko labirintoaren azken salaraino sartua dago.

Hartaz gogoeta egiteko gonbita dator euskaraldi berrituarekin. Bidegurutzean gaudela diote soziolinguistek euren liburuetan; aprobe tx genezake itxialdia *hausnarkiketa* batzuk berrirakurtzeko.

# Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik...? (1)



**IÑAKI AZALDEGI  
ARRIETA  
OINEZKOA**

**G**in-tonic-aren egungo sofistikazioa, gure zoramen zein neurri-gabekeriaren neurria ote?

Zergatik ez doa inor lanera txistuka lasai ederrean?

Birus *puñetero* honek zergatik ditu bi izen (SARS-CoV-2 eta COVIP-19), gripe arrunta baino gutxienez 15 aldiz hilga-

rriagoa delako?

Zergatik da EAE osoan Tolosaldea ospitale publikorik ez duen zonalde bakarra?

Zubietako zeru urdinari zein on egiten dio erraus-tegiaren ke toxiko pozoitsu eta minbizi sortzaileak? Ba ote dakite horren alde daudenek *kimioa* hartzea zer den?

Zergatik iristen dira berandu beti berberak edozein ordu dela adostutakoa?

Ai gixonezko, gixonezko! Zergatik egiten zaigu hain nekeza negar egitea?

**Izurri honek ere zergatik kaltetuko ditu askoz ere gehiago «txikiak»**

**(hizkuntzak, dendariak, baserritarrak, tabernariak, umeak, tailerrak, autonomoak...), beti bezala?**

Munduak daraman bidetik beroaren lagun leial egin beharko ote dugu derrigorrez?

Hilzorian direnek ikusi omen duten tunel amaierako argia ez ote da itzaltzear dagoen kandelarena?

Eroriko zaizkigun meteoro berriek birus ote dute izena? Birusak ote dira aurrerantzean estatu handien lehergailu atomikoak?

Zergatik ez gara gai tristura nabaritzeko hurkoaren begietan?

Zer kristina egiten dugun nor kristok erantzun diezaguke?

Birusa aitzakia hartuta zergatik egiten dute indar erakusketa inperialista zein militarra PSOEk eta Podemosek?

Izurri honek ere zergatik kaltetuko ditu askoz ere gehiago «txikiak» (hizkuntzak, dendariak, baserritarrak, tabernariak, umeak, tailerrak, autonomoak...), beti bezala?

Zergatik galdetzen dizkiot horrenbeste kontu neure buruari lasaiago bizi beharrean?

# Konfinamenduak ondo tratatzen al zaitu?



**AGURTZANE  
BELAUNTZARAN**  
KAZETARIA

**A**paizek eta zakurrek bedeinkatu dizkigute kaleak. Industria martxan da, testak eskalo noiz iritsiko dira herritar xumeen eskuetara. Irakasleek ziber-klaseak prestatzen dihardute, etxean preso dauden hurrek, pantaila ere beste kartzela izan dezaten. Bitartean, teknologia-aren esku utziko dugu gure intimitatea, aplikazio *marabilloso* batzuk sortzen ari baitira, gure gorputzeko tenperatura neurtzeko. Laster, gure animoak nola dauden jakingo dute. Arantzazuko fraideak gu baino lasaiago daude.

Konfinamenduak ondo tratatuko zaituelakoan nago, baratzera joatea debekatu diguten arren. Baduzu hor hala ere, baratza literario ederra. Horra joatea inork ez dizu galaraziko. Urkulluk oraindik ez du agindu hori

eman behintzat. Eskuin muturrekoak ziurrenik planteatzen ariko dira: «*Queda prohibida toda actividad educativa, cultural o de lectura que se realice por cuenta propia*», eta Biblia eta bankuetako publizitatea banatuko dizkigute.

Telebistak, medioek, Trumpek, Netanyahuk, hots, gure eta haien politikoeak, den-denek, egiaz mozorroturiko gezurrak salduko dizkigute.

AEBn, Detroiteko auzoetan eta New Yorken komunitate afroamerikarra eta latinoak izan dira kolpatuenak. Askatasunaren herrialdean, auzo batzuetan ur korrontearen gabeziak, arrakala sozialen arrakala areagotu du. Koronabirusak badaki arrazakeriari buruz. Venezuela izan dute jomuga oilarkerietan auserdia handiegia erakusten duten politikariek. Han (Venezuelan), hau (urik eza) gertatu balitz, medio guztien ahotan ibiliko zen Chavismoaren frakasoak. Trumpismoaren triunfoa aldarri.

Konfinamendu honetan, nire leihotik ikusten ditudan basoak eta txoriak entzutea hain da, hain da, nola esango nuke? Ederra? Hitz hori ote da egokiena? Hain sentitzen naiz gustura. Baina batzuetan, *kristalpetik* eguzki izpirik jasotzen ez dutenekin akordatzen naiz, sotoetan edo *kakapilan* bizi diren horiekin, goxotasuna aspaldi galdu zuten horiekin, prekarietatearen lau pareren artean bizi direnekin eta munduak ere prekarietatea debalde oparitzen dien horiekin. Konfinamendua ez dugu denok berdin bizi, ezta normaltasuna ere. Eta normaltasun horretara itzultzeak beldurra ematen dit, normaltasun hura ere, arazoa baitzen.

**Baduzu hor  
hala ere,  
baratza  
literario  
ederra. Horra  
joatea ez  
dizu inork  
galaraziko.**



**ARANTXA  
SORONDO**  
XINDIBI

# Zabal ditzagun begiak

**J**asaten ari garen COVID-19a eta itxialdia gure gizartearentzat inflexio puntua izango dela sinistu nahi dut.

Konfinamendua ere deitzen diogun honek, ikasteko eta gizarte ero hau aldatzeko aukera paregabea eskaintzen ari zaigu, dela ilusiotik edota utopiatik, barruko begiek zabaltzen baditugu behintzat.

Momentuz, itxialdi behartu hau gogorra suertatzen ari zaigu denoi, baina batzuei besteei baino gogorragoa: batzuk baldintza kaxkarretan bizi dira,

gildu daitezen, ahaleginak egiten. Guraso asko nora-ezean. Nola lagundu ez dakitela edota ezin dutela, prestakuntza dela, metodologiaren ideiarik gabe, umeen interesa piztu ezinik... hizkuntzaren arazoe-kin... Arrakalak eginak daude. Eskola topagune bat da, aurrez aurre mugitzen dena. Fenomeno sozial bat. Horrela ulertzen badugu, aldaketarako bidea zabalik geratuko da. Bestalde, aurtengo ikastaroa ikastetxeetara bueltatuz ixten bada, NATURA izan dadila txikientzat behintzat, ebaluazio eremua. Eutsitako energia askatu eta oreka berreskuratzeko gune ezin hobea.

Aipatutakoak eta gehiago agerian utzi dizkigu

## Zaintzarena zer esanik ez. Erabateko 'normaltasun' prekarioan gaudela argi utzi du COVID-19ak

bakarrak bizi diren adinduak ere badaude eta etxe barruan erasotzaileak dituztenak ere badira. Eta zer esan presoek bizitzen ari diren egoerari buruz? Urteetan jasandako urruntasun eta inkomunikazio krudelei, orain isolamendua areagotzea ekarri die. Ea guk lehenbailehen etxeetatik irtetea lortzen dugun eta konturatzen garen, hormigo, burdin eta krudelkeriez betetako munstro beldurgarri horietatik presoek lehenbailehen ateratzea lortu behar dugula.

Ikasleek ere etxeetan gotortuta daude. Irakasleek, teknika berrien bitartez, haiek eskolako lanetan mur-

COVID-19ak, neoliberalismoak nola ulertu eta baloratzen duen osasungintza publikoaren sistema eta produkzioarena. Zaintzarena zer esanik ez. Erabateko *normaltasun* prekarioan gaudela argi utzi du COVID-19ak.

Aldez aurretik aldarrikatzen ari ginen demandak greba edota mobilizazioen bitartez -bestek beste erresidentzietako langileen demandak, pentsiodunenak, etxez etxeko langileenak eta beste hainbat arlotakoak- berreskuratu behar ditugu. Sistema hau iraultzen dugu edo... gureak egin du!



**MADDI ETXEBERRIA**  
HARITUZ-EKO KIDEA

## Egunero dugun plana

**Doinua** ETaren su etenetik

Teleikasketak edo beste batzuk telelana hori da etxe askotan egunero dugun plana. Kirol apur bat eginaz *jolin*, zer nolako drama: errutina berri bila gu Patry Jordanengana. Ikasketa erraldoi bat dator honekin gugana pazientziaz hartu eta segi egunotan barna umorea mantenduz, ta jaso besarkada bana.





**BIXENTE GOROSTIDI**  
HARITUZ-EKO KIDEA

# Geldialdia


**Doinua** Esplikatzerara noa kontuak

Gelditzeko esan ziguten eta haseran ezin gelditun baino atsedanak askotan beida gauzak nola argitzen ditun itxialdiak gehientsuenok jarri gaitu gu jakitun alperrik zenbat joan etorri ta pauso egiten genitun.

Ezerk ez omen du dena onik ta ezerk ez dena txarrik itxialdian agendak ez du ematen halako gerrik ta begi bixtan agertu digu hilabetean bakarrik zenbat ibili ta joan etorri egiten zan lehen alperrik.



# BIZILEKU MUGATUAK



ZEIN EGONGELETAN PASATZEN  
DUGU DENBORA GEHIEN?



# Txitxirioak ziazerbekin



**AINZANE  
ARTOLA**



**L**ekale plater bat, indarra ematen digun horietakoa. Errezeta Sevillan oso tipikoa omen da. Nutrizionistek asko gomendatzen dute lekaleak berdurekin nahastea, beraz plater ezin aproposagoa da gaurkoa.

Dagoeneko egosita erosten diren txitxirio potea erabili dezakegu. Bestela, nik askotan egiten dut garbantzu kilo bat egosi dena batera, garbi. Ur eta gatzarekin soilik eta sobratutako garbantzuak izozkailuan gordetzen ditut, hurrengo baterako. Hurrengo errezeta baterako prest utzi ahal ditugu honela. Edozein barazkirekin nahastuta ederrak egoten baitira. Garbi-garbi egosiz gero, erabilgarriak geratzen dira. Esaterako, humus bat egiteko.

Lapiko azkarrean egosi daitezke txitxirioak. Hori bai, bezperan beheratzen jartzeaz gogoratu behar gara. Hamabi bat orduz uretan egon behar dira. Horrela bigunduko zaizkigu. Lapiko azkarrean 25 bat minututan jarriko ditugu, ura eta gatza soilik erabilia.

Bestetik, zartagin batean olio jarriko dugu, bertan baratxuria txiki-txiki eginda botako dugu, pixka bat gorritu arte bertan mantenduko dugu. Gainera piper hautsaren bi koilarakada gehituko dizkiogu. Kontuz ibili behar ko gara ez erretzeko; errez gero mingotsa geratuko zaigu eta.

Ondoren, ziazerba gehituko diogu. Horretarako garbi-garbi prestatuko dugu, uretatik pasata. Niri adibidez, hostoa erabiltzea gustatzen zait; zuztarra kendu egiten diot eta eskuarekin zati txikiak egiten ditut. Zartaginean bota eta tapatuko genuke; bertan 5-10 minutuz mantenduko genuke, su baxuan.

Azkenik, txitxirioak bertara botako ditugu eta beste 10-15 minutuz bertan kozinatuko ditugu, su baxu-baxuan, zaporea hartzeko. Behar izanez gero gatz puntu bat gehituko genioke eta platerean zerbitzatzeko orduan beste piper hauts apurtxo bat gehiago gehituko genioke, bai apaintzeko eta baita azken puntutxo hori emateko ere.

## OSAGIAK

150 gr. txitxirio egosita (eskukada bat pertsonako).

200 gr. ziazerba.

Baratxuri bi hortz.

Olio.

Ibarrako piper hautsa.

Gatza.



# «OSO LIBREA DA KONPOSIZIO ZEIN LETRA ALDETIK»

**ENRIKE RUBIÑOS**

LA TOPADORA TALDEKO KIDEA

Vendettako lau kide ohik proiektu berri bat jarri dute martxan: La Topadora taldea. Hamar abesti biltzen dituen 'Voy Con Todo' izeneko diskoa kaleratu berri dute.

## **Irati Saizar Artola**

Martxo hasieran aurkezpen kontzertua eskaini ostean, itxialdia betetzen ari dira La Topadorako kideak. Tartean, Enrike Rubiños (Ibarra, 1977) bateria jotzailea. Diskoaren izenak dioen bezala, guztia amaitzean «topera ateratzeko gogoz» daudela argitu du Rubiñosek.

**Vendettarekin amaitu ostean ez duzue deskantsurako tarte gehiegirik hartu. Beste proiektu bat jarri duzue martxan. Nolakoa izan da prozesu hori?**

Vendetta bukatu zenean deskantsu txiki-txiki bat hartu genuen. Ruben [Anton] eta ni beste proiektu batean sartuta geunden, eta bira egiten ibili ginen Modus Operandi taldearekin. Baina Jabier [Etxeberria] eta

Luisillo [Kalandraka] Vendetta bukatu eta jarraian hasi ziren kantuak konposatzen, eta proiektu berrira begira jarri ziren. Nahiko jarraian joan zen guztia.

**Vendetatik lau kidek jarraitu duzue, eta kide berri bat hartu duzue taldean.**

Pello Reparaz izan ezik gainerako lauak gaude taldean. Gaizka Otsoa da taldekide berria, tronboi jotzailea da.

**Hainbeste denbora musika estilo bera jotzen aritu ondoren, zein norabide hartu du La Topadora taldeak?**

Egia esan geure buruari ez diogu inolako mugarik jarri. Oso-osoa desberdinak dira diskoko kanta asko, ez



daukate zerikusirik batak bestearekin. Azken finean, gustuko musika egitera joan gara eta gu behintzat gustura geratzera egin ditugun kantu eta diskoarekin. Beraz, oso librea izan da konposizio aldetik, eta baita letra aldetik ere.

#### **Instrumentu aldetik izan al da aldaketarik?**

Vendettaren konposizio berdina mantendu dugu. Guztiok abesten dugu tartetxoren batean, eta gainerakoan, tronpeta, tronboia, gitarra, baxua eta bateria dauzkagu.

#### **Nolakoa izan da abestiak sortzeko prozesu hori?**

Vendettako funtzionamendu berdinari jarraitu diogu. Kanta konposatzen aritu denak etxetik prestatuta eramaten du ia-ia guztia. Erritmoarekin etortzen da, letra ere jarrita. Behin lokalean entseguan egonda, azkeneko ukituak ematen dizkiogu.

#### **Zeren inguruko letrak landu dituzue?**

Denetik egin dugu. Letra oso positiboak aurki daitezke, animoak eta altxatzeko diren letra horiek; kritika egiteko erabili ditugunak ere badaude eta baita gure inguruko arazoei buruzkoak ere.

#### **Ia taldekide guztiak aurrez elkarrekin ibiliak zarete. Laguntzen al du horrek gauza berriak egiterako garaian?**

Talde giroan laguntzen du eta baita jotzeko garaian ere. Azkenean, Vendettan hamar urte egin genituen elkarrekin, eta aurretik Skalariak taldean ere hiru bat urte edo elkarrekin jotzen arituak ginen, eta behin jo-

## **LA TOPADORA**

### **VOY CON TODO**

**•Kideak: Jabier Etxeberria (gitarra, ahotsa, programazioa), Luisillo Kalandraka (baxua eta ahotsa), Ruben Anton (tronpeta eta ahotsa), Enrike Rubiños (bateria) eta Gaizka Otsoa (tronboia).**

tzen hasten zarenean, guztia oso azkar doala ikusten duzu, oso trinko entzuten da guztia. Eta giro aldetik ere bai, askotan esaten dugu eztabaidatzen badakigula eta liskarrak daudenetan erraz konpontzen ditugu.

#### **Martxo hasieran egin zenuten aurkezpen kontzertua Bilbon. Zer moduz joan zen?**

Pixka bat beldurtuta joan ginen, izan ere, egun horretan Athleticek Errege Kopako finalerdia jokatzeko zuten Bilbon bertan. Eta kontzertua dohainik zenez, ez genekien zenbat jende etor zitekeen. Baina egia esan jendetza gerturatu zen eta oso-oso ondo joan zen guztia. Lehena eta bakarra izan da momentuz, baina zapore ona utzi digu.

#### **‘Voy Con Todo’ da disko berriaren izena. Zer dela eta?**

*La Topadora* kantuaren leloa da. Eta egia esan, topera joateko intentzioa daukagu, beraz, esaldi aproposa dela iruditu zaigu.

#### **Zer moduzko feedbacka jaso duzue?**

Egia esan aurkezpen kontzertuan sekulako harrera izan zuen diskoak. Eta gainerakoan, sare sozialetan ere nahiko harrera polita dauka, baina oraintxe bertan geldirik gaude, beraz, ea noiz hartzen dugun berriro erritmoa eta topera ateratzen garen.

#### **Prestatuta al dituzue zuzenekoak guztia bukatzen denerako?**

Bai, zuzenekoak prest genuen Bilborako, baina orain kanta berriak lantzen ere ari gara kontzertua apur bat luzatzeko. Horretan ari gara, nahiz eta etxetik aritu behar. Lehendik kontzertua prest bagenuen, orain indartsuagoa egingo dugu.



# «AHOZKOTASUNA DA IBRAHIMAREN INDAR HANDIENETAKO BAT»

**AMETS ARZALLUS**

IDAZLEA

Konfinamendu egoeran, etxean goxo egon behar honetan, ATARIAK irakurzaletasuna sustatzeko interesgarriak diren proposamenak luzatzen ari da, ATARIA IRRATIKO 'Letren Errepublika' abiapuntu hartuta.

**Jon Miranda Labaien / Imanol Garcia Landa**

Ibrahima Balderi gauzak motz esatea gustatzen zaio. «Kilo» esaten duenean, jendeak «kilometro» zuzentzen dio, baina hori hemen gertatzen zaio, ez Afrikan. Ginean, bere jaioterrian, edo Euskal Herrira iritsi bitartean zeharkatutako Mali, Aljeria, Libia edo Marakon, norbaitekin gurutzatutakoan, Ibrahimak galdetuko dio ea denbora pixka bat baduen. Baiezkoa jaso gero, bere kasua esplikatzen hasiko zaio; motz, baina behar bezainbesteko denbora hartuta horretarako.

*Miñan* liburuan Ibrahima Balderen bizipenak kontatzen dira. Ginearrak ahoz kontatutakoa idatziz jaso du Amets Arzallus Antiak. Anoetako liburutegian aurkeztekoa zen liburua, baina konfinamendu neurriak direla eta, bertan behera gelditu zen solasaldia.

**Liburuaz hitz egin aurretik, Ibrahimari buruzko galdera. Harremana mantentzen duzu berarekin?**

Bai, harreman hurbila mantentzen dut. Asiloaren prozeduran zegoen bitartean, erantzun horren zain Cear sareak emandako lekuetan egon behar izaten zuen. Irundik Oñatira eraman zuten eta gero iaz Madriler. Han hasi zuen prestakuntza mekanikari bezala kamioi eta autobusekin. Asiloa ukatu zioten urrian, eta egoera irregularrean geratu zen, baina hala ere prestakuntza egiten segitzen du eta oraingoz Madrilen dago.

**Irungo harrera sarean ezagutu zenuten elkar.**

Pasoan datozen migranteak dira Irunen geratzen direnak. Iristen dira orotariko egoeretan; oinarrizko arreta eta orientazio pixka bat ematen zaie, zer eskubide dituzten azaldu eta gero erabakitzen uzten zaie norantz egin nahi duten. Hurbiltasuna eta berotasuna ematen zaie, asko sufritu eta sufritzen duen jendea delako.

**Ibrahima eta zure harremanari buruzko liburua dela esan izan duzu.**


Liburua istorio baten liburua da, eta istorio hori Ibrahimarena da. Ginean sortu zenetik, bere haurtzarora, eta gero etxetik abiatu zenetik Mediterraneora iritsi arteko liburua. Elkarrizketa batzuen gainean oinarritutakoa da, nahiz eta kontakizuna ez den elkarrizketa formatuan. Eszenifikazio hori azaltzen da liburuaren oinarri bezala, eta hor atzean gure harremana ere badago: pertsona batek bere istorioa gisa horretan kontatzea ez da batere erraza, konfiantza pixka bat ere eraiki behar da bi pertsonen artean; pixkanaka horrela eraikitzen eta askatzen joan den korapilo bat da liburuaren atzean dagoen hori.

**Ibrahimaren bizipen gogorren inguruan ari da ‘Miñan’. Sumatzen da berak baduela kontatzeko beharra; zure kasuan, zein izan da liburua idazteko beharra?**

Ez nintzen idazten hasi liburu bat egiteko ideiarekin. Irunera iristen diren migrante gehienek bidea segitzen dute; baina gutxi batzuk gelditzea erabakitzen dute, batez ere asiloa eskatzeko aukera Europara iritsi diren estatuan egin dezaketelako. Hori egiten dutenek, eta kasu horretan zegoen Ibrahima, gero komisariara elkarrizketa bat egin behar izaten dute. Elkarrizketa hori prestatze aldera, txosten bat osatzeko egiten nien elkarrizketa eta horietako bat izan zen Ibrahima. Horretarako hasi ginen elkarrizketak egiten eta gero pixka bat segitu nuen, ez zuelako kontatzen bukatu, harremana sakondu zelako, eta ikusi nuelako istorioa eta kontatzeko modua oso berezia zuela. Bestalde, bere istorioa entzutean argi ikusi nuen legearen arabera ez zuela aukerarik babes politikoa jasotzeko, nahiz eta pairatu dituenak pairatu, gure sistemak babesik gabe uzten baitu. Orduan, bestelako babes bat eraiki nahian, hasi nintzen zerbait luzeagoa egiten.

**Kontatzeko era berezia duela diozu.**

Ibrahimak, iritsi zenean, justu-justu irakurri eta idazten zuen, baina, aldiz, ahozko kontakizunean arte eta grazia handia du, eta ahozkotasanaren kontrol handia, bai erritmo aldetik, bai hitzen aukeraketen aldetik, bai irudimena aldetik. Bere kulturaren, beste hango kultura askotan bezala, ahozko tradizioak izugarritzeko indarra izan du eta oraindik ere badu; eta Ibrahimari isuri hori nabaritzen zitzaion eta berezia zuen. Migrante bati be-



**‘MIÑAN’**

SUSA

**Narratiba saila. 131.a  
152 orrialde  
2019**

gira diezaiokegu bere ezintasun eta dakarzkien bere oinaze eta miserietatik, baina bada beste begirada bat bere gaitasun eta indarretatik. Ibrahimaren indar handi bat bere ahozkotasuna da, bere kulturatik edana, eta horretan oinarritzen saiatu naiz kontakizuna.

**Ibrahimaren ahotsa irakurtzen da testuan; zure arrastoa ezabatzen ahalegin handia egin behar izan duzu?**

Lehen bertsio bat idatzi nuen, gero zuzenketak egiten dituzu, baina kasik esan dezaket idazten bezainbeste denbora pasa dudala gero zuzentzen eta bereziki ezabatzen, ohartzeko nintzelako batzuetan ni agertzen nintzela eta Ibrahimak ez zuela horren beharrik.

**Hainbat solasaldi egin dituzu liburua aurkeztuz. Zer inpresio jaso duzu liburua irakurri dutenen artean?**

Eskertua nago jasotakoagatik. Batez ere liburua entzun egin dutela esan didate, eta ondoan sentitu dutela Ibrahima, eta nire aldetik pozik nago, nire helburua hori zelako: migrante bat notizietan beste gisa batera pasatzen dena, edo zenbakien atzean gelditzen dena, hurbilago eta ondoan sentitzea, eta hor ahots bat eta gorputz bat sentitzea, ahalik eta hurbilen. Nire motibazio handietako bat hori zen eta uste dut beharrezkoa dela: hurbiltasun bat landu dezagun eta sentsibiltate pixka bat aplikatu dezagun gure herria zeharkatzen duen edo gure herrian gelditzen den jende horrekiko.



**IKER IBARLUZEA**  
EGURALDI ADITUA

# EGU RAL DIA

## OSTIRALA

Giro epel baina ezegonkorra. Goizean giro lasaia izango da, non hodeiak eta ostarteak izango diren eta giro argia egongo den. Hori bai, giro sargori samarra izango da, hezetasun handia egongo baita. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera ordea, bero-hodeiak garatu eta ekaitzetarako joera hartuko du. Ekaitz zaparrada mardulak botako ditu eta ez da baztertzen momenturen batean zaparrada gogorren bat botatzea eta txingorra ere egitea. Haizea aldakor ibiliko da, arratsaldean ipar ukitu batekin eta tenperatura altuenek 21-23 gradutan joko dute goia.

## LARUNBATA

Giro sargori eta ezegonkorra berriz ere. Goizean giro lasaia izango da, hodei eta ostarteekin. Eguerdi-arratsaldeko lehen ordutik aurrera bero-hodeiak garatuko dira eta ekaitzetarako joera izango da. Ez du Tolosaldeko txoko guztietan berdin botako, baina puntualki zaparrada handiak emango dira, ekaitz eta guzti, baita txingorra ere. Haizea goizean aldakor ibiliko da, arratsaldean ipar-ukitua hartuz eta tenperatura altuenak berriz ere 21-23 gradu bitartean joko dute goia.

## IGANDEA

Antzeko giroa. Goiza beste behin lasaia izango da, non hodeiak eta ostarteak tartekatuko diren, baina giro nahiko argia izango dugu. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera berriz ere bero-hodeiak nagusituko dira eta ekaitzak izango dira. Puntualki mardul botako du eta txingorra ere egin dezake.

## ZERBITZUAK

# ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberrak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20  
Tolosa

### Prezioa

15,50€  
45€  
51€

### Atarikideek

12€  
33€  
38€

*Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez*

## FARMAZIAK

APIRILAK 24, OSTIRALA  
**IBARRA**

**Egunekoa.** Leyre Lejeune Maset.  
Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.

APIRILAK 25, LARUNBATA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Cecilia Bronte Posada.  
Korreo, 20.  
943 67 60 13.

APIRILAK 26, IGANDEA  
**AMASA-VILLABONA**

**Egunekoa.** Juana Maria Sanchez Alias  
Kale Berria, 34.  
943 69 11 30.

APIRILAK 27, ASTELEHENA  
**TOLOSA**

**Egunekoa.** Eurne Bengoetxea  
Aiestaran. Kale Nagusia, 7.  
943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO  
FARMAZIA: TOLOSA.**  
**LURDES AZPIROZ GALARZA.**  
**LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

**hamaika**  
urte  
euskaldunoi  
**aukera**  
emater



Eman aukera,  
**hamaikari**

  
688 807 093

**hamaika**.eus



## harpidedun izateak badu saria saridunak

### 1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

- Kandido Aizpurua (Zizurkil)
- Martin Amondarain (Anoeta)

Aranzadi Zientzi Elkarte. Orueta 7, Gautegiz Arteaga  
946 25 11 57 • portuzar@birdcenter.org  
www.birdcenter.org

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.



### 2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

- Maria Luisa Aranzasti (Anoeta)
- Josune Agirrezabala (Tolosa)

www.aquariumss.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.



### 3 DISKA-LIBURUA

"Zuhaitzak landatzen zituen gizona"  
Benito Lertxundiren disko-liburua.  
"Benito Lertxundi naiz" Antton Kazabon  
eta Ainhoa Redondo.

- Jose Ramon Errazkin (Anoeta)

Denonartean argitaletxea •

www.cenlit.com • 948-30 26 77



# Hemen *eta* online

iragarki  
laburrak  
.eus



## Etxealditik EUSKARALDIRA

Ohitura aldaketa etxetik hasten da

   @euskaraldia

 @belarripest / @ahobizi

 [www.euskaraldia.eus/etxealdia](http://www.euskaraldia.eus/etxealdia)